

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakartzeko zerbitzu automatizatuak eta komunitateak erabiliko ditugu:

- *Birzikloop* plataforma digitala: Webgune eta aplikazio baten bidez, bezeroek bere hondakien bilketa aurretiko hitzordu batekin erreserbatu ahalko dute, bakarrik garraioa behar dutenak.
- Komunitatea: Ikastetxeetan eta enpresetan tailerrak egingo ditugu. Horrela, birziklatu egin dezakegu, aspergarria izan gabe.

Bezeroak fidelizatzeko, harreman pertsonala izan behar da:

- Harreman pertsonalizatua izango da: Zalantzak argitzeko, *Birzikloop* bidezko arreta zuzena edo telefono bidezko laguntza emango diogu. Horrela, bezeroari segurtasuna ematen dio.
- Hilero bezeroari, jakinarazpen bat helduko zaio “Hilabete honetan 10 zuhaitz salbatu dituzu zure birziklapenari esker” eta lorpen horiek sare sozialetan partekatzeko aukera emango diegu, birziklapena sustatzeko.

Bezeroa negozio-ereduan integratzea da helburua , harreman egonkorra eta puntuala bihurtuz:

- Bezeroen iritzia eta proposamenak entzungo eta kontuan hartuko ditugu. Aplikazioaren eta webgunearen bidez, sugerentzia-taula bat jarriko dugu hobekuntzak jasotzeko.